

## ***IV. ERANSKINA:***

# ***KALTETURIKO ZERBITZUAK***

---

**IV. memoriaren eranskina: Kalteturiko zerbitzuak**

## **1. OROKORTASUNAK**

Dokumentu honen helburua *Amorebieta-Zornotza eta Bermeo arteko Euskotren trenbidearen gaineko oinezkoen pasabidearen eraikuntza proiektua Muruetan (Bizkaia)* proiektuaren eraikitzean eta erabileran kaltetuak izan daitezkeen zerbitzuak eta zerbitzu hauei kalte txikiena egiteko konponbideak aztertzea da.

Azterketa hau burutzeko hurrengo erakundeekin hitz egin da:

- Muruetako udaletxea
- Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A.

Datuetatik abiatuz, ikusi da kaltetua izango diren zerbitzuak 2 direla:

- Zornotza – Bermeo trenbide linea (Euskotren).
- Teileria ondoko aparkalekua.

## **2. GAUR EGUNGO EGOERA**

### **2.1. ZORNOTZA – BERMEO TRENBIDEA**

Gaur egun trenbide linea hori zerbitzuan dago.

Aste bitartean trenak ordutegi erregularra dute, astelehenetik ostiralera 6:30tatik 23:00etara, ordu erdiko frekuentziarekin norabide bakoitzean

Aste buruan bidaiak 8:30tatik 23:00etara egiten dira, ordu bateko frekuentzian norabide bakoitzean, larunbata domekara dagoen gauean izan ezik, non trenak bidaiatzen jarraitzen duten, bi orduko frekuentziaz.

Trenaren energia iturria elektrizitatea dela eta trenbideak katenaria elektrifikatu bat dauka.

### **2.2. APARKALEKUA**

Teileria zaharrak aparkaleku txiki bat du bere mendebaldeko aldean. Aparkaleku plazak ez daude marraztuta, beraz 14 plaza estimatzen dira.

---

**IV. memoriaren eranskina: Kalteturiko zerbitzuak**

**3. OBRAK SORTURIKO KALTEAK**

**3.1. ZORNOTZA – BERMEO TRENBIDEA**

Obrak hurrengo eraginak izango ditu:

- Obrak trenbidetik hurbil, trenbidearen galiboaren bazterretan
- Materialaren, langileen eta makinariaren zeharkatzea trenbideren alde batetik bestera
- Zubiaren instalazioa trenbidearen gainetik, katenariatik hurbil, trenen mugimendua gelditu beharra

**3.2. APARKALEKUA**

Aparkalekua guztiz okupatuko obraren parkea bertan jartzeko, obraren iraupen osoan.

**4. KONTUAN HARTU BEHARREKO PROZEDURAK**

**4.1. ZORNOTZA – BERMEO TRENBIDEA**

Hurrengo prozedurak hartuko dira trenbideari buruz:

- Trenbidearen zeharkatzea era seguruan egiteko eta trenbidetik gertuko lanen segurtazuna bermatzeko, Euskotrenek agintzen duen bezala, segurtazun pilotu ziurtatu bat kontratatuko da, obraren iraupen osorako, trenbidearen buruzko lanen segurtazunaren arduraduna izango dena.
- Trenbidearen galiboaren gainean lan egitean, trenen zerbitzua geldituko da, lan hauen iraupen osoan. Horretarako, lan hau zerbitzu gutxiko ordutegi batean egingo da (larunbat batean) eta zerbitzuaren ebaketagatik sorturiko kalteak ordainduko dira.
- Obraren iraupen osoan Euskotrenek ezarritako prozedimendu eta aholkuak jarraituko dira.

**4.2. APARKALEKUA**

Hurrengo prozedurak hartuko dira aparkalekuari buruz:

- Aparkalekuaren okupaziorako udalaren baimena eskatuko da eta honek emandako prozedimenduak jarraituko dira.
- Aparkalekua hesiekin itxiko da, obratik kanpoko pertsoneri sarrera galarazteko obraren iraupenaren zehar.
- Obra amaitu eta gero, aparkalekua berreskuratuko da, behar diren obra instalazioen kentze, hondakinen eliminazio eta lekuaren garbiketa lanen bitartez.